



**RUBEN SANCHEZ
BAKAIKOA**
IRAKASLEA

Jainkoaren izenean

Apal-apalik: Benetan? (Jakirik ere EAJri botoa ema(te)n diozuenak asko zaretela, eta autokritika eta apaltasuna arrunt ezohikoa dela gainerako politikari gehienen artean ere). Baina benetan, Iñigo, Apal-apalik?

Jaungoikoaren eta gizartearen aurrean: Jainkorik ez dago, kopon! Dagoena da asmatu, eraiki eta gainean ezarri diguten gizonezko-bizardun-zuri-hetero-kristau-pekatabanatzaila bat. Eta gauzak horrela, lehendakaria Haren ordezkaria Lurrean dirudi. Bestalde, Jaungoikoaren atzean jarritako gizarteak gehiago dirudi jaungoikoaren existentzia eta gorentasunaren atzizki bat demokraziaren oinarria baino.

Eusko-lur gainean zutunik: tumatxa zen “zutunik” hura niretzat, ze tamala, domaia eta pena. Eusko-lur antzinako eta gotor horrek eutsi dio makurtu gabe behintzat. Hik eutsiok indartsu, Iñigo.

Eta Gernikako haritzaren azpian: txiolari batek esan du lurralde oreka bilatu duela Urkulluk gobernu osaketan: sailburuetarik 6 bizkaitar, 4 gipuzkoar, arabar 1 eta madrildar 1. Beraz, lurralde orekan, uste dut itsasodun probintziez ari zela. Azkenean derby-derby-a hori da. Arabarrok han gaudu, beti gisan, sagardotegira goazenean bezala: gabatxo eta madrildarren tropelean, inoiz ez digute kupel onik irekitzen.

Asaben gomutaz: Seguru, baina seguru-seguru super seguru, arbasoek Gernikako arbolan parrandak ere egingo zituztela bilkuren ondoren. Aiii asabek burua altxatuko balute... A ze asperra! Egungo gazte gaixoak pandemia zabaltearen errudun, Murga sailburu ohiak abisu emanik txertoa etorrita ere lehen bezala bizitzerik ez pentsatzeko...

Herri-ordezkari zaretzen zuen aurrean: Bai, baina herriaren %49k ez zien ordezkari horiei botorik eman. Ez dakit, beharbada, herri-ordezkari hitza ordezkatu beharko genuke. Erdi-ordezkari?

Nire agintea zintzo beteko dudala zin dagit: Hona gasteiztar ekarpen demasako bat, Gasteizko Aihotz plazako zina, plazan bertan harrian zizelkaturik dagoena: “Lehendakariak herri honen auzi, esku-bide, salbuespen eta askatasunak oro defendituko ditu, eta hala ez balegi, hitza beteko ez balu, burua moztu diezaiotela Gasteizko aihotzaren zorrotzaz”.

Badakit ustelkeriaren aurkako neurri gogor samartxoia dela, tira, legealdi batean aproba egin genezake, ea zenbat buru saskiratzen ditugun.

God bless Euzkadi.

Munduko zilborrik pelusarik gabekoenetik, omen. ●



**ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA**
IRAKASLEA

Trantsizioaren gotorlekuari setioa

Espainiako Estatuko lau presidente ohik –eta beste pertsonaia batzuek– epaile baten erabakietan eragiteko asmoz idatzitako gutunek Trantsizio izeneko gotorlekuaren defentsarako konplexurik gabeko intentzio irmoa eszenaratzen dute. Gaztelua estatu eredu bat da, askatasuna ulertzeko zinezko ezkerreko forma onetsi ezin duena, bateraezina baitzaio. Gazteluaren ziegetan, inpunitate eredu bat, bide bazterretan milaka biktima utzi dituenak, giza duintasuna urratua.

Noblezia eta kleroa babesten dituzten harresien zaindari, erdi aroko zaldunak eta ezkerren espazioa usurpa-

tu duen mertzenario talde bat, beren zerbitzuak preziorik hoberenean saldu dituztenak: erregea lotsagabeena, Felipe González zinikoena, Zapatero diskretue-na. Sánchez koldarra ala isilena?

Lerro hauek idatzi bitartean, aurrera doaz Servini epaileak Martin Villa prozesatu ala ez erabakitzeko epearen 10 egunak. Agian, hitzok errotatiba batek paper satinatuan itsatsi orduko indarkeriaren oinordeko den estatu honen harresia su bola batek gaitutuko du, herriaren etengabeko ekintzak eragindako katapultatik. Zorionak eta eskerrik asko urtetan lan honetan aritu zaretenei. ●